

EROSKETA BALDINTZA OROKORRAK

I. DEFINIZIOAK

Baldintza Orokor hauetan berariaz bestelakorik adierazi ezean edo testuingurutik beste zerbait esan nahi duela ondorioztatu ezean, esaldi hasiera edo izen berezi izan ez eta letra larriz hasten diren hitzek eta adierazpideek Baldintza Orokor hauetan ematen zaizkien esanahia edukiko dute.

“Hornidura” izango da Hornidura Kontratua aplikatuz Hornitzaileak egin beharreko hornidura, zeina Baldintza Orokor hauetan arautuko den zerbait ere baden.

“Hornidura kontratua” izango da Baldintza Orokor hauetan araututako produktuen erosketarako kontratu harremana, eta bere barruan sartuko dira Hornidurari lotutako gainerako dokumentuak.

“Eroslea” izango da Hornidura Kontratuaren bitartez Hornitzaileak (edo hainbatek) lotuko duen sozietatea, bai eta sozietate horren edozein filial ere.

“Produktua/k” izango da/dira Hornitzaileak Erosleari edota erosleraren Filialei salduko di(zki)on hornigaia/k, zeinak/zeintzuek Erosleak definitutako ezaugarri teknikoak izango dituen/dituzten.

“Ordezko piezak” izango dira produktua/k osatzen duten/dituzten ordezko pieza guztiak, berdin dela zer motatakoa eta zer izaeratakoa den pieza horiek hartuko dituen ondasuna eta haren bizitza baliagarria.

“Bezeroa” edo **“Azken Bezeroa”** izango da Eroslearen azken bezeroa.

“Ezinbesteko ekitaldia” izango da ezinbestean edo naturak, agintaritza zibilak edo militarrek, uholdeek, epidemiek, gerrek, lan gatazka nazionalak eta esportatzeko edo inportatzeko debekuek eraginda gertatu den edozein ekitaldi, betiere ekitaldi hori ustekabekoa eta ekidinezina izan bada, ezinbestekotzat jotzeko erreklamatzeko duen Aldearen kontrolpetik kanpo badago eta Baldintza Orokor hauen edo Eskarien ondorioz Alde horrek dituen betebeharrak betetzeari eragiten badio.

“Aurreikuspena” izango da Erosleak aurreikusten dituen produktuen eskaera.

“Eskaria” izango da Produktuen entregarako Erosleak Hornitzaileari idatziz egiten dion eskaera.

“Hornitzailea” izango da Hornidura Kontratuaren xede diren Produktuen Hornidura egingo duen Hornitzailea.

Eroslearen **“Filiala/k”** izango da/dira zuzenean edo zeharka Eroslearen kontrolpean dagoen/dauden edo haren jabetzakoa/k den/diren enpresa/k.

“Ezbeharra” izango da aseguru konpainia batek ordaindu dezakeen istripu edo kalte bakoitza.

“Bertan behera uztea” izango da Erosleak Hornitzailearen lanak bertan behera uzteko eskatzeko duen eskubidea.

II. ALDERDI OROKORRAK

Baldintza Orokor hauek Hornitzaileak Erosleari eta haren Filialei egindako hornidura guztiei aplikatuko zaizkie, eta, osagarri moduan, Hornidura Kontratua osatzen duten dokumentuetako batean ere ez berariaz hitzartu edo arautu ez diren gai guztietan aplikatuko dira beti.

Hornidura Kontratua osatzen duten dokumentuen aldaketak edota zuzenketa idatziz formalizatu beharko dira. Ez dira Hornidura Kontrakoez bestelako baldintzak aplikatuko, kasu jakin batean edo gehiagotan aplikatu badira ere edo berariaz baztertu ez badira ere. Hornitzailearen salmenta baldintza orokorrak ere ezingo dira aplikatu.

III. ESKARIAK. PROZEDURA.

Eskariak eta eskarietan egindako aldaketa edo zuzenketa guztiak ere idatziz egin beharko dira.

Erosleak idatziz igorriko ditu Eskariak. Aurreikuspenak ezingo dira, inola ere, Eskarizat hartu.

Hornitzaileak Eskariak jaso eta hurrengo LAU (4) laneguneko epean erantzungo die, beranduenez, idatziz egindako Eskari guztiei, jasotako Eskaria onartzen duen ala ez adierazita. Eskaria onartzen den unean baino ez da loteslea izango Hornitzailearentzat. LAU (4) laneguneko epean Hornitzaileak Eskariari ezetz esaten ez badio, Eskaria onartuta dagoela ulertuko da.

IV. ALDAKETAK ETA ZUZENKETAK

Hornitzaileak hitz ematen du Erosleak produktuen diseinuan zein ezaugarrietan eta fabrikazio prozesuan eskatutako aldaketak egingo dituela.

Hornitzaileak ezingo du aldaketarik egin (i) Produktuetan (produktuen ingeniaritzan, diseinuan eta prezioetan, esaterako), ezta fabrikazio prozesuan ere, Erosleak aurretik horretarako baimena eman ez badu. Eroslearen baimenik gabe aldatu ezin diren Produktuen zehaztapen berezia eta aldaketen eskaera eta onarpena ere Erosleak kasu bakoitzean ezarritakoaren mende egongo dira, Hornidura Kontratua arautzen duten eta Hornitzaileak derrigor bete beharko dituzten dokumentuetako edozeinetan. Eroslearen aurretiko baimenik gabe egiten diren aldaketak Hornitzaileak alde bakarreko erabakiz egindakotzat joko dira eta dute balioko eta, beraz, ezingo dira egin.

V. PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Hornidura Kontratuan adostutako prezioak, edo horietako batzuk finkatzeko modua, finkoak, behin betikoak eta berrikusiezinak direla jotzen dira, eta Hornidura Kontratuaren xede osoa hartzen dute beren baitan, Erosleak Produktuak jaso eta Produktuekin erabat ase egon arte (aurrerantzean, **“Prezioa”**). Kontrakoa berariaz adierazi ezean, prezioetan ez dira zergak eta BEZa sartuko. Prezio guztiak eurotan adieraziko dira, kontrako adierazten ez bada, behintzat.

Ulertzen da Hornitzaileak operazioaren arriskuei lotuta beharrezkoa den informazio guztia eta Produktuen fabrikazioan eta entregan eragina edo ondorioa eduki dezaketen beste baldintza batzuen gainekoa ere badauzkala. Hornitzaileak bere gain hartzen du Produktuak behar bezala fabrikatzeko eta entregatzeko kostuak eta zailtasunak aurreikustearen ardura osoa. Prezioa ez da inola ere egokituko aurreikusi ez diren zailtasunak edo kostuak kontuan hartzeko.

Produktu akastunak entregatuz gero, Erosleak Hornitzaileari ordaindu beharko dion diru kopururen bat atxikitzeke eskubidea izango du, Produktu akastunak ordeztu bitartean.

Entrega unetik Produktuak Erosleak saldutako ondasunetan sartu bitartean Erosleak Produktu akastunak daudela ikusten badu, Erosleak Produktu akastun horiek baztertu eta Hornitzaileari bueltatzeko eskubidea edukiko du, Produktuak entregatu ez direla jota. Baztertutako Produktu horien prezioa fakturatik kenduko da, edo ondorengo beste fakturretatik, ordainketa jada egin bada.

Aurretiaz egindako bidalketen kasuan, ordainketa adostutako egunaren arabera egingo da.

Hornitzaileari jakinarazi aurretik, Erosleak fakturazio automatiko bidez ordaintzeko eskubidea edukiko du.

Alde biek berariaz adosten dute Erosleak eskubidea daukala Hornidura Kontratuaren arabera elkarren artean zorpetutako diru kopuruak konpentsatzeko, berdin dela zorren izaera, XV. baldintza orokorrak xedatutakoaren arabera.

Erosleak Produktuen Hornidura Aurreikuspen bat eman ahal izango dio Hornitzaileari, baina Eroslea ez da inoiz behartuta egongo Eskaririk egitera.

Eskari bati dagozkion zerga eta karga guztiak dagokion Aldeak ordainduko ditu, lege xedapenekin bat etorrita.

VI. ENTREGAK ETA ATZERAPENAK

Entrega egunak lotesleak dira eta Hornitzaileak data horiek betetzeko konpromisoa hartzea funtsezkoa izan da Hornidura Kontratua formalizatzeko. Erosleak Hornidura Kontratuko Produktuak jasotzen dituen egunean esango da bete dela entrega eguna.

Hornitzailea izango da entrega atzerapenez egiteak dakartzan kalte eta galera guztien erantzule, Hornidura Kontratuan adostutakoaren arabera, bai eta garraio kostu gehigarriena eta berriz hastearen kostuena edo Produktuak hirugarrenei erostearen

ondoriozko kostu gehigarriena ere. Benetan atzeratuko dela jakiten bada edo atzeratu egin daitekeela aurreikusten bada, hori hala gertatuko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko dio Hornitzaileak Erosleari, eta, atzerapena ekiditeko edo ahalik eta txikiena izateko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko ditu, bere kontura.

Baldintza honen aurreko atalean ezarritakoaz gain, entregatu beharreko Produktuak atzerapenez entregatzen badira, Hornitzaileari zigor bat ezarriko zaio, atzeratzen den aste bakoitzeko Hornidura Kontratuko prezioaren %1 jaitsita. Kontzeptu horregatik ezarri daitekeen zigorrik handiena ezingo da Hornidura Kontratuaren balioaren %10 baino handiagoa izan. Zigor hori gauzatzeko, Erosleak Hornitzaileari zor dizkion fakturen prezioekin konpentsatu ahal izango da.

Atzerapenagatik zigorrak ez du Hornitzailea salbuesten atzerapenaren ondorioz Erosleak izan dituen kalte-galeren ordaina ematek.

Entrega guztiakin batera entregaren albarana joan beharko da –eta materialaren ziurtagiri bat, halakorik egotekotan–, Hornitzailearen goiburuarekin eta Eskari zenbakiarekin, non Hornidura Kontratuko baldintzen arabera entregatutako Produktuak eta, kasua bada, kutxa kopurua edo beste edozein enbalaje motaren kopurua eta pisu gordinak eta garbiak ere adieraziko diren.

Produktu guztiak behar bezala identifikatuta jaso beharko dira, Eroslearen barruko kodea adierazita eta Produktu mota bakoitzerako egokia den enbalajearekin, zeina Erosleak alde aurretik onartutakoa izango baita. Hornitzaileak Produktuen trazabilitatea bermatu behar du, bai eta, kasua bada, Produktuei lotutako osagai eta material guztiena eta Produktuaren bizitzan egiten diren eragiketa guztiena ere (garraioa, prozesua, mantentze lanak, etab.).

Hornidura Kontratuan bestelakorik ezarri ezean, biltegiatze, enbalaje eta garraio kostuak, tartean direla aduanak, manipulazioa, enbalatze eta desenbalatze lanak, aseguruak eta, oro har, entregaren ondoriozko guztiak, Hornitzailearen kontura izango dira.

VII. PRODUKTU DESEGOKIAK ETA KALITATE HELBURUAK

a. Produktu desegokien tratamendua

Hornitzailea behartuta dago Hornidura Kontratuan adostutako zehaztapenak betetzen dituzten Produktuak entregatzera. Erosleak Produktuen akats guztien berri emango dio Hornitzaileari, akatsak antzeman bezain laster. Aurrekoak ez du esan nahi Eroslea entregatzen zaizkion Produktuak ikuskatzera behartuta dagoenik.

Entrega albarana edo entregaren beste edozein dokumentu izenpetzeak ez du esan nahi, inondik inora, entregatutako Produktuek berez dakartzaten obligazioak betetzea berariaz edo inplizituki onartzen direnik, ez eta Hornitzaileari bere obligazioak betetzeko exijitzeari uko egiten zaionik ere. Ordaintzeak ere ez du esan nahi Produktuen kalitatea onartzen denik. Horrenbestez, entregaren ondoren, Erosleak antzeman dezakeen edozein gabezia, galera, kalte edo desegokitasunengatik dagozkion galerak izango ditu, baita Produktu horiek Bezeroak fabrikatutako beste ondasun batzuetan sartu ondoren, Produktuak aldatu ondoren edota Produktuak Bezeroari entregatu ondoren ere.

Produktu desegokiak ordeztu edo konpondu egin beharko dira, eta Hornitzaileak egingo ditu lan horiek bere kargu eta kontura. Kasu horretan egin beharrekoa Hornitzaileekin adostutakoa izango da, ahal den neurrian. Adostasunik egon ezean, Erosleak erabakiko du zer tratamendu eman. Produktua konpontzeak edota ordezteak dakartzan gastuak eta itzultzeak eta desegiteak dakartzanak ere Hornitzailearen kontura izango dira.

Gainera, Erosleak eskubidea izango du Hornitzailearen azpikontratistengana zuzenean jotzeko.

b. Kalitateko helburuak

Hornidura Kontratuan ezarritako kalitateko helburuei kalterik egin gabe, Produktu desegokiei buruzko kalitateko helburu espezifikoak edo mugatzaileagoak esleitu ahal izango ditu. Helburu hori urtero berrikusiko da, aurreko aldian lortutako emaitzen arabera. Helburu horiek lortzen ez badira, Hornitzailea behartuta egongo da helburu horiek lortzeko ekintza plan bat aurkeztera. Hornitzaileak Hornidura Kontratuan ezarritako helburu orokorrak betetzen ez baditu, Erosleak Hornidura Kontratua ezeztatzeko eskubidea izango du ez betetze horrengatik.

Hornitzaileak onartzen du Erosleak aldian-aldian ikuskapenak egin ahal izatea fabrikatzen ari diren Produktuei edo Produktuen fabrikaziorako erabilitako prozesuari, ikuskapen horien ondorioz Produktuaren kalitatea edo fabrikazio kostuak hobetzeko egin beharko diren ekintza zuzentzaileak bere gain hartuta.

VIII. HORNITZAILEAREN ERANTZUKIZUNA - ASEGURUAK

Hornitzailea Produktuen fabrikazioaren eta entregaren ondorioz sortutako kalte eta galera guztien erantzulea izango da Eroslearen eta hirugarrenen aurrean.

Erosleak bere azken Bezeroaren konpromisoak betetzeko kalterik edo gasturik eduki izan baditu, Hornitzaileak horien ordaina eman beharko dio (esaterako, garraio kostu gehigarriak, eskulan gehigarria kontratatuzko premia, etab.) eta Hornitzaileak hautsitako betebeharrak direla-eta Azken Bezeroak izan dituen kalteen edo zehapenengatik Hornitzaileak hari ordaindu beharko dion diru kopuru guztien ordaina eman.

Hornitzaileak agintzen du Eroslea erantzukizun orotik salbuetsiko duela eta Hornitzaileak hautsitako obligazioren baten ondorioz edo segurtasun, higiene eta ingurumenaren alorreko arauak xedatutakoa ez betetzearen ondorioz pertsoneri eragindako heriotza edo lesioengatik edo materialei eragindako kalteengatik erantzuteko kalte ordainak erabat ordainduta, tartean direla Eroslearen defentsaren zentzuzko ordainsariak eta, kasua bada, aseguru polizaren frankizia ere bai.

Hornitzaileak erantzukizun zibileko poliza bat eduki beharko du hirugarrenei eragiten zaizkien edozein eratako kalteek dakartzaten diruzko ondorioak estaltzeko, baita Hornidura Kontratua gauzatzearen ondoriozko kalte materialak eta gorputzekoak ere, Ustiatagia, Profesionalak, Estaldura, Produktuak, Produktuen Ordezpena edota Bazterketa eta beste lan batzuk tartean direla, eta Ezbeharragatik egotzi ahal izango litzatekeen erantzukizunari erantzuteko nahiko estaldurarekin. Hornitzaileak agintzen du Hornidura Kontratua indarrean dagoen bitartean poliza indarrean edukiko duela, eta, kasua bada, Erosleari edo Bezeroari polizaren kopia bat entregatuko diola.

Aseguru polizak hirugarrenen edozein jabetza ere estali beharko du.

Hornitzaileak produktu akastunengatiko erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar du.

Hornitzaileari aseguruaren estaldura mantentzeko eskatzen bazaio ere, horrek ez du Hornitzailea salbuetsiko Eroslearekin duen erantzukizunetik, ezta erantzukizun hori ordeztu edo mugatu ere.

IX. ETENDURA

Erosleak eskubidea izango du edozein unetan Hornidura Kontratua osorik edo partzialki eteteko, eta Hornitzaileari idatziz jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorioak etendurak. Lehen esandako jakinarazpena jaso ondoren Hornidura Kontratua gauzatzeari utziko dio Hornitzaileak.

Kasu horretan, Hornidura Kontratuaren exekuzioa sei hilabete baino gehiagorako eteten bada, Aldeak ahalik eta lasterren elkartuko dira kontratuko intzidentziak aztertzeke eta ondoren Hornidura Kontratuari berriro ekiteko aukerarik egongo ote den aztertzeke.

Hornitzaileari idatziz jakinaraziko zaio Hornidura Kontratuari berriro ekin beharko diola, eta Hornitzaileak ez du horri ezetz esateko eskubiderik izango.

X. HORNITZAILEA BISITATZEA / INFORMATZEKO OBLIGAZIOA

Harreman komertzialaren esparruan, Eroslearen enpleguak edozein unetan sartu ahal izango dira Hornitzailearen tailerrera, Erosleari aurretik eta zentzuzko aurrerapenez jakinarazita. Bisita horien asmoa da kalitatearen planifikazioan aurrera egiteko modua ezartzea, prozesuaren auditoriak egitea eta kexak lekuan bertan eta batera tratatzea.

Hornitzailea prest egon beharko da Erosleari laguntzeko, hark Produktuak solte edo beste batzuekin batera edo makina konplexu batean txertatuta eskuratu dizkion bezeroren baten erreklamazioa eduki duenean, betiere Erosleak hala eskatzen badio.

XI. AZPIKONTRATAZIOA ETA LAGAPENA

Hornidura Kontratuaren xede diren Produktuen hornidura osorik edo zati bat beste enpresa batzuei azpikontratatzeko, Hornitzaileak Eroslearen baimena eduki behar du aurretiaz eta idatziz. Erosleak, berriz, eskubidea izango du azpikontratataren instalazioetara joan eta azpikontratutako Produktuek zehaztutako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeke.

Hornitzaileak, halaber, ezingo du Hornitzaile Kontratua hirugarren baten esku utzi, ez osorik eta ez partzialki, Erosleak horretarako baimena idatziz ematen ez badio behintzat.

Dena dela, azpikontratatzeko edo hirugarrenen esku uzteko baimena edukita ere, Hornitzaileak kontratuko obligazioak bete beharko ditu, obligazio horiek Hornitzailearen

erantzukizuna izaten jarraituko baitute. Hornidura Kontratua adostasunik gabe beste baten esku uzten bada, lagapenak ez du balioko, osoa izan zein partziala izan.

Hornidurarako behar denerako eta ekoizpen kate osoaren onurarako, prezioei zein kalitate irizpideei begiratuta, Erosleak Hornitzaileari adierazi ahal izango dio osagai edo lehengai jakin bat azpikontratista espezifiko bati erosi beharko diola. Adieraziko dioten azpikontratista gorabehera, Hornitzaileak jarraituko du izaten Hornidura Kontratuaren xede diren Produktuen kalitatearen, entregaren eta beste betekizun batzuen erabateko erantzulea. Erantzukizun horretatik salbuetsita egongo da soilik baldin eta Hornitzaileari azpikontratista horren nortasuna jakinarazi eta hurrengo hamar (10) eguneko epearen barruan zalantzaren bat agertzen badu azpikontratista horrek eskatu zaionari erantzuteko duen gaitasunaren gainean.

XII. BERMEA ETA ORDEZKO PIEZAK

XII.1 Bermea

Hornidura Kontratuaren xede diren Produktuen bermea Bezeroak Produktua eramango duen ekipoa jaso edo Produktua eramango duten osagaiak, makinak, ekipoa edo piezak seriean fabrikatzen hasi eta HOGEITA LAU (24) hilabetera amaituko da, gutxienez, eta beranduenez Produktuak solte edo beste batzuetan edo makina konplexu batean txertatuta bezeroari entregatu eta (36) hilabetera.

Hornitzaileak bere gain hartutako berme obligazioaren barruan sartzen dira bai bermean dagoen Produktuari lotutako kostuak (konponketa, ordezipena, etab.), bai azken Bezeroak jasotako Produktu akastunengatik Erosleari egiten dizkion erreklamazioak.

Hornitzaileak berme epearen barruan egindako lanen kostu eta arrisku guztiak hartuko ditu bere gain.

Bermearen arabera fabrikatutako Produktuak beraiei aplikatu beharreko baldintza eta termino beretan bermatuta egongo dira.

Hornitzaileak denbora tarte minimo bat bermatu beharko du jakinarazten zaizkion akatsak konpontzeko esku hartzeko –erantzuna emateko– berme epearen barruko produktuetarako.

XII.2 Ordezko piezak

Hornitzaileak Produkturako beharrezkoak diren eta gomendatzen diren Ordezko piezen zerrenda entregatuko dio Erosleari, bakoitzaren prezioaren azalpenarekin, zeina aurreko atalean definitutako Bermeak estaltzen ez dituen kasuetarako aplikatu ahal izango baita. Prezioa eguneratu ahal izango da baldin eta Hornitzaileak Ordezko piezen kosutaren igoera behar bezala justifikatzen badu, eta igoera hori kalkulaturako prezioaren %10 izan daiteke gehienez ere.

Hornitzaileak bermatu beharko du Ordezko piezak hamabi (12) urteko epean eskuragarri egongo direla, aurreko atalean azaldutako berme epea hasten den unetik hasita.

XIII. BUKAERA

XIII.1 Ez betetzeagatik suntsiaraztea

Erosleak Hornidura Kontratua suntsiarazi ahal izango du, osorik edo partzialki, Hornitzaileak bere obligazioak betetzen ez baditu.

Ondorio horietarako eta izaera mugatzailerik gabe, Erosleak Hornidura Kontratua suntsiarazteko ahalmena edukiko du ez betetze kasu hauetan:

- a) Atzerapenengatik ezarri ahal zaizkion zigor kopuru maximora iristea, Baldintza Orokor hauetako VI. Klausulan ezarritako eran.
- b) Hornitzaileak eskatutako kalitate betekizunetara edo kopuruetara ez iristea.
- c) Hornitzaileak bere azpikontratistei zor dizkien diru kopuruak ez ordaintzea, nahiz eta kaudimengabeziagatik prozedura judiziala hasita eduki.
- d) Hornidura Kontratua, osorik edo partzialki, baimenik gabe beste baten esku uztea edo azpikontratatea.
- e) Eroslearen baimenik gabe Produktuak aldatzea edo Erosleak ezarritakoez bestelako ezaugarriak ematea Produktuei.

Ez betetzeagatik kontratua suntsiaraztea idatziz adierazi behar zaio Hornitzaileari.

Suntsiarazpenaren abisuan, Hornitzaileak hogeita hamar (30) eguneko epea edukiko du ez betetzea konpontzeko, eta epe hori igaro ondoren ez betetzea konpondu ez badu, Hornidura Kontratua automatikoki suntsiarazita geratuko da.

XIII.2 Erosleari komeni zaiolako suntsiaraztea

Hitzartutako hasierako epea amaitu delako suntsiaraziko dela aldea batera utzita, Erosleak Hornidura Kontratuari ezetz esan ahal izango dio, osorik edo partzialki, horren zergatia justifikatu beharrik gabe, soilik laurogeita hamar (90) eguneko aurrerapenez Hornitzaileari idatziz jakinarazita.

XIII.3 Hornidura Kontratuak suntsiarazteak edo bukatzeak dituen ondorioak

Hornidura Kontratua suntsiarazten den egunetik, suntsiarazteko arrazoia edozein dela ere, Hornitzailea honetara behartuta egongo da:

(i) Hornidura Kontratua gauzatzeari uztera; (ii) erosleak eskatuta, Produktuak dauden egoeran daudela eta Produktuen fabrikaziorako erositako ondasunak Eroslearen eskura jartzera, eta (iii) Erosleak eskatuta, Hornitzaileak Hornidura Kontratua gauzatzeko hirugarrenekin egindako eskarien edota kontratuen ondoriozko eskubide guztiak lagatzera.

Hornitzaileak eragiten dizkion kalte eta galerak erreklamatu ahal izango dizkio erosleak.

Erosleari komeni zaiolako kontratua suntsiarazten bada eta Erosleak suntsiarazpena jakinarazteko epeak bete baditu, Hornitzaileak ezingo ditu kalte ordainik eskatu kalte eta galerengatik.

Hornidura Kontratua amaitu eta hurrengo hamar (10) urteko epean indarrean jarraituko dute konfidentzialtasun betebeharrek. Hornidura Kontratuaren indarralditik haratago ondorioak izan behar dituen kontratuaren baldintza orokorrek eta klausulek ere indarrean jarraituko dute. Bermeak eta ordaintzeko obligazioek erabat bete arte jarraituko dute indarrean.

XIV. JABEGOAREN TRANSFERENTZIA ETA ARRISKUAK

Produktuen jabegoa produktuak entregatzean edo ordaintzean, horietatik lehenen gertatzen den unean, igaroko da Eroslearen eskura.

XV. KONPENTSAZIOA

Erosleak, bai eta Eroslea kide deneko Taldea osatzen duten enpresetako edozeinek ere, enpresa horietako edozeinek Hornitzaileari zor dion edozein zenbateko kendu edo konpentsatu ahal izango du Hornitzaileak enpresa horietako edozeini zor dion edozein zenbatekoriek.

XVI. JABEGO INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

Material, dokumentazio, pieza eta plano guztien jabego intelektual eta industrial eta, oro har, Erosleak Hornitzaileari eman dion edozein dokumentu, pieza edo informaziorena, Eroslearena baino ez da eta izango da beti.

Hornitzaileak ezingo ditu Erosleak eman dizkion fitxategi edo planoak kopiatu, ez eta beste inori edo beste erakunde bati transferitu eta Eroslerarentzako Produktuak fabrikatzeko ez den beste xede baterako erabili ere. Plano edo fitxategi horiek bueltatu beharko dira Erosleak eskatuta.

Ondorioz, debekatuta dago Hornitzaileak aurreko paragrafoan adierazitakoaz bestelako xede baterako kopiak, erregistroak, fabrikazioa, salmentak, iragartzea, lagatzea edo erabiltzea. Hornitzaileak debekatuta dauka Produktuak eta fabrikazioaren planoak edo prozedurak erregistratzea, jabego industrialeko edozein eskubidez baliatuta.

XVII. ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK LAGATZEA

DANOBAT GROUP, S.COOP.ek Eroslearen/Erosleen esku utzi ahal izango ditu Baldintza Orokor hauen ondorioz eskuratutako eskubideak eta obligazioak edo Hornidura Kontratuaren parte izan eta Azken Erosleek formalizatu ez duen beste edozeinenak, izenpetzaileen baimena eduki beharrik gabe.

XVIII. TIRABIRAK KONPONTZEA ETA LEGE APLIKAGARRIA

Baldintza Orokor hauek eta beraiek parte direneko Hornidura Kontratua Espainiako legeriaren mende egongo dira, berariaz adostuta ez dela aplikatzerik egongo 1980ko apirilaren 11ko Vienako Hitzarmena salgaien nazioarteko salerosketa kontratuen alorrean.

Baldintza Orokor hauekin eta Baldintzak parte direneko Hornidura Kontratuarekin desadostasunik balego, eztabaidako Aldeen ordezkari arduradunak tirabira hori konpontzen saiaturiko dira, fede onez. Aldeetako edozeinek eskatuta, Alde bakoitzaren goi zuzendaritzaren ordezkari batek negoziazioetan parte hartuko du. Alde bakoitzak eskubidea izango du edozein unetan negoziazio horiei amaiera emateko, beste Aldeari idatziz jakinarazita.

Baldintza Orokorren gainean eta Baldintza horiek parte direneko Hornidura Kontratuaren gainean sortzen diren tirabira guztiak hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera ebaztuko dira behin betiko, aurreko atalaren arabera konpontzen ez badira.

Aldeek tirabira modu adiskidetsuan konpontzen ez badute, aldeak Eroslearen helbideko Epaitegien eta Auzitegien mende jarriko dira berariaz, egokitu ahal zaien beste edozein barrutiri berariaz uko eginda, Baldintza Orokorrek eta Baldintza horiek parte direneko Hornidura Kontratua interpretatzean, garatzean, gauzatzean edota amaitzean sortu daitezkeen desadostasunak ebazteko.

XIX. HAINBAT GAI

➤ Datu Pertsonalen Babesa

Dokumentu hau gauzatzeak ez du esan nahi beste Aldearen titulartasuneko datu pertsonalak eskuratu ahal izango direnik, dokumentu honetan identifikazio, kontaktu eta gaitasun datuak izan ezik. Dokumentu hau garatzean Alderdiek nabaritzen badute beharrezkoa dela Alderdietako batek beste Aldearen titulartasuneko datu pertsonalak eskuratzea, bi alderdiek akordio berri bat formalizatuko dute, eta bertan jasoko dira **abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren ondorioz** eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez babesteari buruzkoak (aurrerantzean, "DBEO") edo hura ordeztu, osatu edo garatzen duen beste arauen batek ezarritakoaren ondorioz aldeei **exijitu behar zaizkien** obligazioak.

Aldeek agiri hau sinatzen duten ordezkariak jakinarazten diete, DBEOan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoaren arabera, alderdi bakoitzak bere datu pertsonalak tratatuko dituela, haien kontratu harremanei eutsi ahal izateko.

Era berean, Alderdiek bermatzen dute beren enplegatuei buruzko informazioa emateko betebeharra beteko dutela, baldin eta haien datu pertsonalak Alderdien artean komunikatzen badira kontratu harremana mantentzeko eta betetzeko.

Dokumentu hau egiteko eta gauzatzeko beharra da interesdunen datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa.

Datuak dokumentu hau indarrean dagoen bitartean gordeko dira, baita zerga araudiaren preskripzio denboran ere.

Dena dela, eragindakoek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko/ezabatzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte dagokien aldearen aurrean, agiri honen hasieran agertzen den helbide sozialera idatziz jakinarazita, nortasun agiri nazionalaren edo agiri baliokidearen fotokopia aurkeztuta eta erabiltzea eskatzen den eskubidea identifikatuta.

Halaber, datu pertsonalak babesteko duten eskubidea urratutzat jotzen badute, erreklamazioa jarri ahal izango dute datuen babesaren alorrean eskumena duen Agintaritzan.

➤ **Hizkuntza**

Baldintza Orokor hauek eta Hornidura Kontratuaren parte den beste edozein agiri hainbat hizkuntzataraz itzul badaitezke ere, Baldintza Orokor hauetarako eta Hornidura Kontratuaren gainerakorako gaztelaniak izango du lehentasuna.

➤ **Uko egitea**

Alderdiek eskubide, baldintza edo pribilegioren bat erabiltzen ez badute edo edozein betebeharrak betetzeko exijitzen badute, horrek ez du esan nahi Hornidura Kontratuko baldintzei, eskubideei eta pribilegioei inplizituki uko egiten dietenik.

➤ **Klausuletako edozein baliogabe izatea**

Hornidura Kontratuko estipulazio eta/edo baldintzetakoren bat baliogabetzat, deuseztagarritzat edo eraginkortasunik gabekotzat jotzen bada, deklarazio horrek ez du baliogabetuko Hornidura Kontratuaren gainerakoa eta, beraz, balioa eta eragina izaten jarraituko luke. Erosketa Baldintza Orokor hauen idazpurrek eta tituluek kontsulta erraztu baino ez omen dute egiten, eta, beraz, ez dute eraginik izango baldintza horietan jasotako xedapenen interpretazioan.

➤ **Ezinbesteko arrazoia**

Aldeetako bat ere ez da izango bere betebeharrak ez betetzearen erantzule, baldin eta ez-betetze hori Ezinbesteko Gertaera bat izan bada.

Ezinbesteko Gertaerak eragindako aldeak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio beste alderdiari gertatutakoa, eta adieraziko dio, halaber, zer gertakariri aurre egin behar dion, Ezinbesteko Gertaerak gutxi gorabehera zenbat iraungo duen eta zer neurri hartuko dituen gertaeraren ondorioak arintzeko.

Hornitzaileari eragiten dion Ezinbesteko Gertaera hamar (10) egun baino gehiago luzatzen bada Erosleari jakinarazi zaionetik, Erosleak Hornidura Kontratua suntsiarazi ahal izango du, osorik edo zati batean, hartu agiriarekin ziurtatutako gutun baten bidez, betiere Ezinbesteko Gertaerak eragindako arazoak konpontzeko irtenbide bateratua lortu ezin izan bada.

Ezinbesteko Gertaerak irauten duen bitartean, alderdiek egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte, hornitzaileak bere betebeharrak ezin betetzeak eragindako kalteak eta galerak saihesteko.

➤ **Legeria betetzea**

Hornitzaileak bere betebehar sozial guztiak bete behar ditu, hala nola nomina, istripu aseguruak, gizarte segurantza, etab., aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituenak baitira.

Hornitzaileak Produktuak fabrikatzeko beharrezkoak diren arau aplikagarri guztiak bete behar ditu, bai fabrikazio herrialdean, bai azken entregan, baita segurtasunarekin eta ingurumenarekin lotura duten arau guztiak ere.

Hornitzaileak zerga, lan eta gizarte segurantzaren alorreko legeria bete beharko du, bai enplegatuei eta Produktuak fabrikatzeko beharrezko eskulanari dagokienez, bai laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan.

Hornitzaileak bere betebehar sozial guztiak bete behar ditu, hala nola nomina, istripu aseguruak, gizarte segurantza, etab., aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituenak baitira.

Edonola ere, Baldintza Orokor honetan aipatzen diren arauak ez betetzeagatik, Erosleari edozein erreklamazio, zehapen, isun, kalte-galera ordaindu beharko dio Hornitzaileak.

➤ **Konpromiso etikoa**

Hornitzaileak giza eskubideen babesa, gutxieneko lan baldintzak, ingurumen erantzukizuna eta ustelkeriaren prebentzioa errespetatuko ditu. Ondorioz, Hornitzaileak zero tolerantzia adierazten du edozein motatako delituengatik, eta berariaz debekatzen du Hornidura Kontratua gauzatzeari lotuta delituak egitea, bai zuzenean bai hirugarrenen bidez.

Ondorioz, Hornitzaileak konpromisoa hartzen du ustelkeria ekintzarik ez egiteko, eroskeria, influentzia trafikoa eta kapital zuriketa barne direla, bai eta jokabide hori bere erakundearen barruan gerta ez dadin ere, Hornidura Kontratu hau gauzatzeari dagokionez. Adierazpen horiek Hornitzaileari berari eta haren langile guztiei eragiten diete, bai eta ondorengo azpikontrata gabe eta Hornitzailearekin zerikusia duen edozein pertsonari ere, Hornidura Kontratu hau betetzeko.

Baldintza Orokor honetako xedapenak betetzen ez badira, Erosleak alde aurretik suntsiarazi ahal izango du Hornidura Kontratua, hargatik eragotzi gabe Erosleari dagozkion beste eskubide batzuk, eragindako kalte-galeren ordaina, esaterako.

Eta agiri honetan jasotako adierazpenekin eta estipulazioekin bat datozela eta horiek onartu egiten dituztela frogatzeko, alderdiek Baldintza Orokor hauek sinatu dituzte, bi aletan eta ondorio bakarrerako.

Data:

Izenpea eta zigilua: